

# Orson Welles

(1915 - 1985)

*Aita ONAINDIA'k*

## Bizitza

Ilkorrak gara-ta, balbe-gurpi-llak arin emon oi dautso bira osoa gure bizitzari. Eriotza deika, ate joka, aizeari orma sendoa lez guingarri jakuna. Uste barik jatorku. Orson Welles bere zinema lanean ebillen, eta or topoz-topo sega baltz-duna deiez. Igaz urrilla-ren 10'an il zan Orson.

Il-albiste orren otsez intzirika jardunak dira egunkari ta aldizkariak. "Erraldoi baten azken jauzia", iñoen. Zazpigarren artearen aur miresgarria, bikain eta ezin ohea 70 urtekin joan jaku. Arrigarrizkoa izan zan zineman, irrattian, teatruan; Ipar-Ameriketako Los Angeles urian emon dau azken arnasa, iñoiz burutuko ez diran asmo, egin nai ta xedez betetik.

Bizitzan aundi, aundiago eriotz ostean, esan dabe albistariak.

Mendiak bizkar-unak eta gizonak goraberak, ez gitxi, izan oi dabez bizitzan. Baita Orson'ek be. Onek egiñiko lanari egokionez, leenmaillako aulkian urteetan jazarria, 1940'an erdi-gizuren, erdi-jainko zana, azkenez errukarri ta

erdi-aaztua il jakun. Bizi-zoriaren larria!

Orson Welles Kenosha (Wisconsin)-en jaio zan 1915'ko maiatzaren 6'an. Richard Head Welles bere aita ta Beatrice Ybes, pianujotzaillea, bere ama. Buru-argi, erne ta goiztar agertu zan mutikoa, teatru zale batez be, gitxik lako gaitasuna ortarako erakutsiz. Amasei urte eukazala, Dublin'go Gate Theatre'n egin eban saioa len-aldiz. Orduantxe asi eban bere antzerki karrera, Ipar Amerikan jarraiturik.

## Lanak

Gero ta trebetuago barruti ortan, laster eldu zan zuzendari kargura. Eder jakon bereziki gogogriñai egoak azke izatea. Begiko zituan idazle zarrak, klasikuak eta leena berriztuz eta aurretikoen kanonak irabiatu ta eten bat egiñik, arrigarrizko iraultza sortu eban epe laburrean.

1938'an, prastakoan zabaldu zan aren ospea, argi-izpi antzera

munduan barrena. Irratiz bardin jardun oi eban, eta egun batean "The War of the Worlds" (Munduen gerra) zala-ta, sorgindurik laga zituen entzule guztiak. Jai ta ikuskizun ausart zale, eup-egille ta zipotz, ikusle-entzuleak biotz-lertu nairik bezela, bere sort indar bizi oparatsuz.

Orson'en lana, zine-lan nune bait, 1941'an asi zan "Citizen Kane" (Kane Uritar) eritxonaz. Gaia: egunkari egille gotor baten bizitza, mamin naiz azal, ederra. Kontaketa onen inguruan beste 12 bat pelikula be osotu ebazan. Izkera bikain-bikaiña darabil, giza-joera, pentsakera ta biotz-zirradak azaldu ta adierazteko giar-egokia. Lan errime latz au, kritikuen eritxiz, aiutu ta bete-betea, zinemari dagokionez klasi-kutzat artua izan zan. Onak tinko-ta eban, geien bat, egillearen nor-tasuna.

Geroago idatzi ta antzeztuak dira ondorengo lanok: "The magnificent Amberson" (Laugarren agindua), 1942; "Macbeth", 1947; "The Lady from Shanghai" (Shanghai'ko Andera), 1948; "Othello", 1951; "Mister Arkadin" (Arkadin jauna), 1953; "The Touch of Evil" (Gaitz-egarri), 1958; "Le Procés" (Auzia), 1968; "Falstaff" (Gauerdiko kanpai o-tsak), 1966; "Kondaira illezkor bat", 1968; "Iruzurra" (televistarako), 1973; "Aizearen Bestekal-

dean", 1974; eta beste ikus-mintz asko berak egin eta zuzenduak: "Jane Eyre", 1941; "Irugarren gizona", 1949; "Moby Dick", "Uda luze beroa" ta abar.

Lan guztiokin garatu, besteratu ta azkortzen euskun zine-teknika oso. Ortarako gaiñera ordurarte ez-ezagunak ziran bide barriak erabilli zituan: argi-illuna, lau jarraikoa, zelai ta landaren sakontasuna ta gaiñerakoak; zertarako, baiña? Irudi-gaitasunak adieraz-indarrez eta bizitasun geiagoz jantzi ta aberastekotan. Aren eskuetatik urtendako pelikula guztiak daroe gitxi-asko bere nortasun bipillaren ezaugarri gardena. Iñoren mende buruturiko papere-tan be bardintsu, Karol Reed'en "Irugarren Gizona" antzeztu ebanen baitik bat.

### Goralpenak

—Irratiz lenengo egin eban eki-ñaldian zoraturik itxi zituan entzuleak, norbait Marte'tik lurrera jatsi zala uste izanik.

- 1941'an, "Kane Uritar" iruditu ebanen, jenteak eta egunkariak, arriturik, onela iñoen: "Gure gizurera mando bat da, montru bat paperean".
- 1942'an, "The magnificent Amberson" edo "La Splendor des Amberson" egitean, egunerokoak aurrez idatzi

eben: "Welles onen irudiak igarri barik goiak, beiak eta luze-zabalak artzen ditu usgune edatuago baten eske".

— 1947'an, "Shangai'ko Andera" emotean, ak eta onek bala-bala otsegin eben: "Egillearen irudia, bikun egiña, Rita Hayworth'ren laguntzarekin".

— Il zanean: "Erraldoia il jaku, erraldoi bat ostondu da zinema barrutian, irudia ta tragedia, indarrez bezela goranaiez ere, gaillur-gaillurrean jarri euskuzana".

Nunnai jokutzen ebala, Ipar-Amerikan, Ingalaterra'n naiz Frantzia'n, gisa orretan ebilkigun beti. Eder jakon Cannes'ko zinema-jaietan parte artzea. Adiskide asko inguratzen zituana zan. Bein Maurice Bessy'k, Cannes'ko Jaialdiko ordezkari zanak, Orson'en adiskide miñak, idazten eban: "Naspildua naiz ni. Baiña guztiz alegindu naiatzu olan ez agertzeko jente aurrean. Orson Welles'ek gurako leuke erioizukor ez izatea, edo guk bera izukortzat ez eukitea. Ak iñoan: "Eriotza niri interesgarria jat egunero; onek egiten daust niri bizitza alai ta eder. Urreratzen jatalarik be, ez jat epeltzen arek sortu oi dauskun kezka ta ardurea".

Oiez lako gizasemea genduan. Giza kondiziño berezkotik arantzekoa zenduan Orson. Ona: Jainkoaz be, egunero alkar izketa bat barriketan zirudian, Onek iñotso-larik: "Orson, zer egin dozu zuk, nik emon neutzuzan doai guztiazkaz?"


### Goietaz ibilki

Klasiku-zale zan, eta ingles antzerkigille ospetsuaren lanak arrobi lez jakozan bere asmoetarako. Aren trajediak eredu arturik matazatu eban "Kans Uritar". Bakian ondo be une estu ta larriak gertatu, egokitu ta argi-izpi zurbi-letan itzul-inguru guzurrezkoz edo egi-antzekoz ertzak lokaztu ta onik ateraten. Shakespeare-ren Otelo ta Macbeth tragedia garrazak beintzat, ziñeratu euskuzan.

Teatru-gai guztiotan, naiz antzekoetan, gizuren eta aurrelariak (protagonistak) euren nor-izate gabe gelditu oi dira, orogal jokatu bearra dabe-ta. Norbere jit, gar, arnasa ta irritsak batera jartzen dabez jokoan, aize zakarrari eutsi naita dabillen arte sendoaren antzera. Jokoa gaiak eskatu-ala bete bear. Eta gudariak guda-oiñean bezela, antzezlariak be alik eta leial, kementsu ta bikaiñen bere egitekoa bete nai. Ez dau iñolaz be porrot egiña bere burua ikusi gura.

Drama-zale zan. Or-emen irakurriz gai izubidez aberats eta

umore oneko ziran ipuin, elebarri ta irakur-mordoak, errez egokitu oi ebazan teatru naiz filmarako. Ez eukan sorburu makala, ortarako, ingles literatura baltzean. Pipa erretzaile amorratu, era berean jatzun idazlan irakurle be, eta atsegin jakozan gaiak mamin beroa jarteko ba eban trebetasunik. Eder jakon, ez gitxitan, entzuleikusleen buru-uleak zut-zut ipinteko, infernura jaitsi ta ango naspil ta sugar izugarrietan ikara egitea: "Shangai'ko Andera" deritxonean, Elsa itxaropenik ezeko etsimenean eta bakartade gorrian ilten dalarik, O'Hara, bere aldetik, alderatuz doa baketsu egunsentirantz. Modu bardiñean, naiz-ta ez orren setati, "Gaitzegarria"-n be, gizurenak bere eskintza dagi, illaz, lokatz artean. Ordikeriaren piku ta zauri-atz guztiak daroaz aren gorputzak.



"He was a man".

Mariane'k, beraz, arengana samur-samur urreratuz diño: "He was a man" (gizaseme bai zara). Orain ez dau zoramenik.

Jean Collet'ek idatzi eban "Gaur-eguneko Faust guztiak prozedura ta joerak bialdu oi dau be, gizonak gainditzen dabenez baiten billa: ertia, istoria, Jainkoa... Orson Welles olerkari da gainditasunaren olerkaria, oron transzendentziaren poeta. Zer dogu berau? Orson'en filmak, ba kotxa bere egitura bereziz ornatuak zirala, edo-ta graziak bide billa bialduak dirala ikas-zade illuntsuetan zear".

### Barre-irria

Ez eutson uko egin ezpartertzetako irri-parista, imintzio ta kiñuari; une goibelak gozatzeko bikain datorkigun guzur-antzeriduri ori. Gizartean sarri ikusitadana irri gaiztoa be, naiz-ta ugariagi ez, ba ekian tarteratzen. Olako antzezleri irrikoiak dizdiz jantzi o ditu teatru-unerik illun-garratzenak be. Leenagoko antzerki-idazleak, zein frantsesak, zein espaiñar-inglesak, barre-eragilleren bat beti sartzen euskuereuren lanetan; Shakespeare'k berak ez zituan ertz itxi olako txerpolari bitxiak.



Shakespeare'ren "Falstaff" (1966)

Egingai bakotxari ondo ego-  
tion irrizko pikorra jarten eutson.  
Otelon eta Falstaff'en, esaterako,  
beti zindo, prestu ta bete dabil.  
Begiak naro, soñia astun, eskak  
zabal, mikrora urreratzean dar-  
darka, alaitasunik bagako arpegi-  
kerá... "Kane" papera egitera-  
koan, osterá, egiana egiala, iñoa-  
na iñoala, berak edegi bear zituan  
uriko atea, berak itxi, ango ezku-  
tu, biur-une ta errapideak eraku-  
tsi... Zer da mundu onetan egia ta  
zer da guzurra? Zuzenbidea, alan  
be, dirauana dozu. Astiro doa, lau  
aizetara bialdu oi ditu edozeiñen  
lotsabakokeri ausartak, edozeiñen  
asarre-sumin, itz-gaizto ta eupá-  
dak, zorakeri ta lillurak, baita  
edozeiñen barne-min eta umoreak  
be. Orson'ek ba-daki au.

URTARRILLA-EPAILLA 1986

Paris'en 1982'an, guztiz aundi-  
kiro omendu eben, Oorezko Legi-  
ñoako buru izentatuz eta. Nainun  
eta nainoiz ospe guranez artua  
izan zan; atea oro zabaldu joko-  
zan. Ainbat alkar-izketa, itzaldi,  
prentsa-aurreko, zer ez? Erraldoi  
bat zan, jainko bat... Txera ta  
aundi-itxura guztiak bereak zitun,  
Paris ta inguruak, bereak. An ebi-  
llen Orson bere kapela baltzaz,  
soiñeko miresgarriz eder, zigarro-  
txokor luze-berezia aoan. Poz-  
jarioka, irripar eskinka. Berak  
aurretiaz bere gustoko jaialdi bat  
iragarri ez ba-eban be, an zan bere  
irribarrea dana alaitzeko, gau ta  
egun giar, lodi ta idor.

Irripar ari esker, erraldoia arek  
aaztu-erazo al izan eban apur ba-  
terako Orson Welles aupatua ta,



"Errepublikaren gizona" (1949)

egunkari ta gaiñerakoai kuku egiñez, berak opa lekuetara jo al izan. Zinematikara osterata bat, ango zine-ikasleak itz egiñik. Onein irudimena aztertu neurtazi gura izan eban, bearbada, norainoko indarrak eraginda ebiltzan. Onan mintzatu zan arein aurrean: "Oba dozue soiñu gitxi, kolore urri... Teknikaz aurrerago, ederraren graziz atzerago". Erregu gu egin eutsen: "Jardun aurka, nai ba'dozue". Kemena, garra, itza dira egillearen (antzelariaren) doerik onenak". Kontseju bikain!

Gero, urte bateren buruan, Erti-Ederren Ikastetxeak Welles aukeratu eben arrotz arteko urgazle lez. Barrokoaren antsute osoa sartu eban Orson'ek Ikastetxea zarrean. Uste bitxi barria leoiaren bizitzan eta abagune galanta barre-eztandart gailenak sortzeko. Auxe zan, izan be, Welles'en eguneroko irripar aintzagarría, bere oinkadak baiño aurrerago beti dantzatu zanarena; barrukezka, asarre ta deabrukeri guztien artean ezti-gantzu lez noiznai agertu zanarena.

### Ezkontza

Diñoenez, garai artako ziñe-izarrak izugarrienarekin ezkondu zan; baiña ez jakon ezkontza ortatik onik etorri orduko esan larriai jaramon egiterakoan; origaitik za-

balazo zangaiñera bere karrerako pelikula ta mintzik trinkoena osotu ebala. Auxe zan: "Shangai'ko Andera". Onela autortu eban amerikar txatxuak, ezkontze-edeak puskatuz, banandu ziranen: "Ezin daiteke bizi jenu batekin. Nekegarriegia da". Eta batakotxak bere bidea artu eban, geiango ez alkartzeko.

Bera ta ingurua, oro zan aundi deiez. Orson Shakespeare'ren tragedi, drama ta komedietako gizeren (heroe) bat zan, bere adierazkemenaz, giza-adore ta sulezazko griñaz. Etsizun Shakespeare'n aitaturiko Otelo, Macbeth eta Falstaff bakarrik antzeztu, baita beste komedi askoz be goiargitu zan: Windsor, Richard III, Enri IV ta Enri V'an adibidez.

Beti eztiak be giza-aoa nekatu egiten. Artista arrigarri onek, amerikar zineman erdi-zapuztua, Frantzia'n aurkitu eban, 1950'tik, oiartzun gozoa bere lanerako. Jean-Paul Sastre'k benetan goretzi eban arek "Kane Uritar" filmintzean erakutsitako kemena. Bai kritikuak eta bai ziñe-egilleak agurtzen dabez euren arteratu zanaren irudimena ta begi zorrotza. Orson Welles'i laket izango jako Frantzia'n lan egitea Sacha Guitry, René Clément, Claude Chabrol eta besteakaz.

Egia esateko, zeinbat lan zail neketsu filmatzen ditu, bide batez Europa'ko uriburu askotaz ibilliz

bere eginkizunari lotua. Bolara ontan onduak ditu mintz bi bikain-bikaiñak, "Falstaff" bata, emen bai jatzu agertzen oso erne ta tre-be komeri ta dramarako, jostaillu ta olako lanetarako, eta "Auzia" bestea, Kafka'ri jarraituz osotua. Antoni Perkins eta Jane Moreau'gaz. Azken-lan onetan Orson'ek gordin be margoztu daroa administraziñoko infernua ta epai-auzia errea. Urteierarik ez daukan bidea, itz gogor trumoitsuz azaldua, giro astun iruntsi eziñean oretua. Arrakasta itzala!

### Erio-zale

Etxeko eban eriotza. Bost urtekin asi zan arekin lanean. "Nik pelikula bat egitean —iñoan berak—, pelikula bat dagit bakar-bakarrik". Orson Welles'ek, bere geiegizko neurkeraz konturatua, alegiñak egin oi zituan pertsona arrunt eta xeen maillan jarten, or-tik be umore onari leku emonik. Adierazo dogu: frantses zinemak omendu ebanean, ipuiñetako nor bizi bat lez artua izan zan, edergaillu ofizialak, Crillon otelean prentsa alkar-izketak, eta abar; oso goratua, biziki omendua. Bere azken mintz biak, alan be, amaitu barik geratu ziran.

Zerbaiten egille danak bere-berea dauan zerbait —gogo txatalak esan oi danez— laga oi ditu idaz-lerro tartean eta kulatzetan. Musika idazleak sinfoni amaitu

bako bat izten ei dabe, alaxe libru ru naiz mintz-egille batek be, izten ditu bere zinefilak mundu guztiarentzat, zazpigarren artearen oroigarri bezala. Edu orretan arek bizi izaten segi al izango. Beraz, au diñogu: "Lanak ezilko-tzen gaitu".

Orson'entzat etzan bape bildur-garri erioa; etzan a atso zaar zapailtsu, sega bizkar-gaiñ, bizi-aregarriz ebillena. Labandu ta ma-terazo izan dau eten barik bere mintz-lanetan. Ez eban gitxitatu oiukatu: "Amar urtera'ezkero, naren lagun bizi izan naz. A barik egi-egiaz, barregarri lebilke mundua!".

Aundi bizirik, aundi ilda. Aundi kalean, aundi antzokian. Aundi dia nainun. Mintz bat, naiz-ta egin ona izan, arek esku artuz gero antzaldatua, erabarritua geratu zan beingo batean. Kissinger politikak esan eroian De Gaulle buruz, au edozein aretora sartu toki arek beste giro bat artzen ebita. Bardin Welles'egaz be. Jean Cocteau'k ederto: "Aur-gisa bereraturuz erraldoi bat zan, txoriz berkerizpez ederturiko zugatz batakatea apurtu eban txakur bat, berper eragille ta zoro jakintsu, munduz inguratutako bakar-zale bat".

Erio-zale genduan mintz-egille onen lanaz eritxi-emolle guztiak eto-zan bat. Goizez intz-artean eguzkiak jorik milla argi-pitatu



agertzen diran legez, onek be anitz kolore ta eratako lana burutzen bait euskun. 1963'an, "Kane Uri-tar" Frantzia'n lenengoz emon za-nean, egunkarietan dozena bat adierazpen diferenteak agertu zi-tan gixienez, gero filma au lau ta erreza zala autortu ba eben be.

Izkera zalu gogorra erabilten eban, sarkorra oso. Asietan pitin erdi-illumna, ostu tartetik datorren errainua iduri gerora naiko argi gertatuz. Orson'ek sortutako ziñe estiloa, ederra zan eta gaur ba-da, argazki-kutxa erabillirik. Idatzia, Welles'en idazkera, beti asmo ba-ten zerbitzurako, eriotz-ideia, es-

ku arteko gaiak eta gauzak, dea-bru txiki batenak dozuz artistearen goi-argitan, goi-goiko gainde-gian nasai egazka.

Orrelaxe, gizuren legez, munda obetu naiz, tristeari poza eskuratu guraz, igaro zan ludi onetan barrena. Asmo ta xede lilluragarriz gainezka eukan oindiño arima bipilla; baiña arrats eguzkitsu batean, deia izan eban, mundu au itxi ta besterako deia. Erio lez Jainkoa be, beti gogotan erabilli erabilli ebanak, ziur asko, egiñiko lanen ordaiña eskuratua dau da-goneko.



"Shanghai'ko Andrea" (1945)